



Curriculuma	Gorka Julio
-------------	-------------

Gorka Julio, informatika ingeniari teknikoa. Profesionalki Elurnet enpresan egiten du lan, garatzaile eta formatzaile lanetan. Web garapena, tresna sozialak, sare sozialak, mugikortasuna, e-irakaskuntzak izan dira lan lerro nagusienak. Hauetako bi adibide blogari.net blog plataforma eta zutagu.net sare soziala dira. Formatzaile moduan EHU, UEUK eta Asmoz fundazioaren software librearen gaineko irakasle izan naiz, baita Enpresa Digitalean antolatutako beste hainbat ikastaroetan ere.

Teknologiarekin loturik ere Bildu.net, microblogging nanoformats, gauzeninternet.com, Arraytxiki.com, Itzalagunea.com eta beste proiektu batzuk sortu eta beste batzuetan parte hartu dut. Teknologia eta honen eragin sozialak interesatzen zaizkit batez ere.

Informazioaren arloan hainbat hedabide alternatiboetan parte hartu izan dut. Horretaz gain, teketen.com blog pertsonala ere idazten dut. Irratian, Radio Euskadin kolaboratu izan dut eta gaur egun Info7ko Anfora programan eta Euskadi Irratiko Amarauna programako barnean, blog tertulian. Prentsan *Gaztezulo* aldizkarian bost urteetan zehar kolaboratzaile bezala aritu naiz eta gaur egun *Berria* egunkarian Irlen Sarea izeneko zutabea idazten dut.